



**2022KO MARTXOAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko martxoaren hogeita batean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2022ko martxoaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMAR MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAHIRU euro ETA HOGEITA HEMEZORTZI zentimo (30.813,38 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- ELEKTRIZITATE HORNIDURAREN KONTRATUAREN LUZAPENA.-

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko maiatzaren 25ean hartutako akordio bidez, udal honek "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez elektrizitate hornidura kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X19033) IBERDROLA CLIENTES S.A.U. enpresari (IFZ.: A95758389) esleitzea erabaki zuen, esparru akordioa burutzea erabaki zen baldintzetan.

Aipatu kontratua bi urterako izenpetu zen, gehienez urtebeteko 2 luzapen egiteko aukerarekin.

Aurreikusitako mugaeguna iristear dela kontuan izanda, Gobernantza Departamentuak, 2022ko martxoaren 16ko foru agindu bidez, urte beteko lehenengo luzapena baimentzea erabaki du; erabaki du baita ere administrazio klausula partikularren agiriko ezaugarrien taulako 13. atalean ezarritako prezioen berrikuspena aplikatzea.

Honen aurrean, eta espedientean dauden txostenak ikusita, tokiko gobernu batzarrek, aho batez, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko Udalaren eta IBERDROLA CLIENTES S.A.U. enpresaren artean elektrizitate hornidurarako izenpetutako kontratuaren urte beteko luzapena onartzea.

IV.- JUBILATU ETA ERRETIRATUEN OROBIONE TABERNA-JATETXEA ERRENTAMENDUAN EMATEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Jubilatu eta erretiratuen Orobione taberna-jatetxea errentamenduan emateko kontratua 2022-04-23an amaituko da.

Hau honela, udal zerbitzu teknikoek berriro errentamenduan emateko baldintza plegu teknikoa eta administratiboa eta kontratazio espedientea prestatu dituzte.

Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta ogasun batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Tokiko Gobenu Batzarrak, aho batez, honako erabakiak hartu ditu:

Lehenengoa.- Orobione taberna-jatetxea errentamenduan emateko kontratazio espedientea onartzea.

Bigarrena.- Lizitazio deialdia egitea, Kontratazailearen Profilean argitaratuz.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-02 zk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2022eko martxoaren 21etik aurrera, astean 2 egun eta eguneko 1,5 ordu. Onuaraduaaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2 izango da.
- 12-11-01 zk.dun esped.: martxoaren 2tik aurrera etxeko laguntza zerbitzua handitzea astean 2,5 ordutik 5,5 ordura, onuradunak laguntza gehiago behar duelako. Erabiltzailearen ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 103 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.
- 135 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.
- 14-01-005 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.
- 16-01-008 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 55,50 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 60% da.
- 17-01-009 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 76,78 €ko diru laguntza ematea urtariletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 83% da.



- 18-01-003 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 92,50 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.
- 21-01-011 zk.dun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 39,80 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 140,00 €ko diru laguntza ematea urtarriletik abendura. Emandakoa eskatutakoaren %100 da.

Oinarrizko premietarako 178,10 €ko diru laguntza ematea martxoan. Emandakoa eskatutakoaren 100% da.

Ifarra-Hegoa lankidetzeta programa.-

Diru laguntzen Ifarra-Hegoa Lankidetzeta Programaren 2022 urteko deialdia egitea.

Gazte laguntzaileen bekak.-

2022ko gazte laguntzaileentzako beken deialdia egitea.

VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara eta hezkuntza batzordeak, autoa eta motorra gidatzeko baimena euskara hutsean ateratzeagatik diru laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak honako hau erabaki du:

Proposamenean erantsitako zerrendako bi laguni, guztira 200 €, hau da, bakoitzari 100 €ko diru laguntza ematea.

Diru laguntza hau 1 480.01.335.00 partidatik ordainduko da.

VII.- JARDUERA EKONOMIKOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK .-

Jarduera Ekonomikoko batzordeak diru laguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak diru laguntza hauek onartzea erabaki du:

- Lazkaoko merkataritza eta ostalaritzarako jardueren irekiera eta modernizaziorako diru laguntzen barruan aurkeztutako ondorengo eskaerari diru laguntza ematea:

Merkataria	Zenbatekoa
Julen Irurtzun Iraola (Oreka okindegia)	2.200,00 €
Javier Gutierrez Hernandez (Gurea burdindegia)	500,00 €

Diru laguntza hau 2022ko aurrekontuan txertatutako 2021eko 471.03.430.00 partidatik ordainduko da.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak hogeita bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.